

Elizako korua

Badirudi aspaldikoa dela elizan kantoreak egoteko ohitura, baina bildu den informazioa Roberto Gallurralde emandakoa da, eta honela adierazi zuen:

- ◆ Txiki-txikitatik hasten ginen tripleetan kantatzen.
- ◆ Orduko erretorea zen Manuel Lizarribarrek eta Juan Mari Imaz organistak erakusten ziguten kantatzen eta musika.
- ◆ Batzuetan, kanpoko kantariak ere etortzen ziren (Juanito Mugika ...).
- ◆ Inguruko herrietara ere joaten ziren zenbait elizkizunetan kantatzera.
- ◆ Honako hauek dira, Robertok dioenez, ezagutu dituen kantariak:

Roberto Gallurralde, Asintxio Karrera, Joxe Altuna, Joxe Etxeberria, Poli Etxeberria, Lobato (medikua), Jose Tolosa, Pedro Mauduit, Juantxo Etxegoien, Joxe Iñurrita, Silberio Artola, Jose Galarza, Jose Antonio Zabala.

Jose Antonio Zabala Bengoetxea “Xalton”

- Amezketan jaio zen, 1951/12/9an.
- Arantzazuko fraideetan ikasia, ikasketa arruntak eta musika: koruan kantatzen, solfeoa...
- Gitarra bere kontura ikasi zuen.
- Pilotari prestatzailea.
- Gitarrarekin kantuan, Gipuzkoako herri gehienetan ibili zen, Bizkaian ere asko eta Nafarroan ere bai.

Ainhoa Altuna Sarasola

- Amezketan jaio zen, 1986/01/22an.
- Ikasketak: Kazetaritza eta soinu-teknikari ikasketak.
- Musika:
 - Trikitixa jotzen du.
 - Alegian Koldo Iparragirre eta Eider Zubillagarekin ikasi zuen.
 - Talai-dantzarekin eta Eguberrietan ibiltzen da soinua jotzen Amezketan.
- Skamatxin musika-taldeko abeslaria da.